

[orri nagusia](#)[web mapa](#)

Bilatu:

 

- [ARTEA](#)
- [BERTSOTAN](#)
- [MUSIKA](#)
- [ESZENA](#)
- [IKUS-ENTZUN](#)
- [LITERATURA](#)
- [BESTELAKOAK](#)

ARTEA

Mirari Tailerra Sondikan

2009-05-26 1 9:30:27



Kontua da Sondikako herritarren gogoak plazaratzea da, beren herriarekiko desirak kartografiatzea. Tailerrak hitz egiteko, desiratzeko, eztabaidatzeko, amesteko abaguneak izango dira. Nahi hauek tailerretan eta herriko hainbat lekutan utzitako mirari poteetan jasoko dira. Hau da, zuei esker mirariak gerta daitezke!

Nola hartu ahal da parte? Pentsa ezazue mirari eran, ilusio batean, berau zaila eta ezohikoa iruditu arren. Idatzi itzazue Sondikarekiko dituzuen nahiak eta ekar itzazue tailerrera, edo bestela, utzi desira hauek, liburutegian, gaztelekuan, kultur etxean, kultur aretoan, Artebe eta Goronda polikiroldegian eta beste hainbat tokitan.

Gainera, ekainaren 6an, paella herrikoi bat egingo da, tailerren emaitzak plazaratu eta desioak biltzen jarraitzeko.

Proiektua Xelo Bosch eta Cyrille Larpenteur artisten ideia da. Informazio gehiago [consonni](#) arte produktorearen webgunean duzue.

Nontzeberri

Bidali zure albistea**T. T. T.**

- [Mirari Tailerra, mirari hitzaren adiera ezohiko eta ederrena berreskuratzen duen metafora da. Sondikan egingo da arte proposamen hau maiatzaren 25 eta 31an. Herriarekiko norberak dituen desirak plazaratzean datza tailer hau.](#)
- [Aurten ere, Juan de Otaola y Perez de Saracho Beka martxan jarri da. Bere semeak, Pablok, sortutako beka honen asmoa Arte Plastikoen formazioan laguntzea da.](#)
- [Bilboko Udal Musika Eskolako 250 ikasle eta irakasle baino gehiagok eskainiko dute gaur, Bilboko Euskalduna Jauregian ikasturte bukaerako kontzertua. Hitzordua 19.00etan izango da. Musika Eskolako Sail guztiak parte hartuko dute eta programan konposaketa klasikoak, euskal tradiziozkoak eta pop musika estiloko zenbait arrakasta interpretatuko dira, Beatles, Queen edo Abba adibidez.](#)
- [Mundumira Munduko Kulturen Jaiak ekimenaren bosgarren edizioa egingo dute aurten. Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran izan eta gero, aste honetan Eskoriatzan izango da, ostiraletik igandera bitartean, hain zuzen. Aurten ere egitarau oparoa atondu dute ekimenaren antolatzaileek.](#)
- [Maiatzaren 22tik aurrera eta uztailaren 30era bitartean Artea eta Ikerketa deialdian aukeratutako proiektuak erakutsiko dira Gasteizko Montehermoso Kulturunean. Inaugurazio egunean kontzertua ere izango da Munlet eta Las Tipazo taldeen eskutik.](#)
- [Arte Hormonatua jaialdia EHUko Arte Ederren fakultatean da. Hala, gaur goizean bertan, David Pascual Huertasek, *Performance y Espacios Híbridos* hitzaldia eskaintzen ari da.](#)
- [Gure inguruko soinuak grabatzeko artea ardatz duen Soinu Mapa 3.0 webgunea aurkeztuko dute gaur Artelekun 19:00etan. Ekitaldian Xabier Erkizia eta Xavier Balderasek parte hartuko dute. Horrez gain, Miguel A. Garciak kontzertua eskainiko du 20:00etan.](#)
- [Bilboko 3 Moila aretoa aurtengo Arte Hormonatuaren edizioan aukeratu diren bideo-lanen proiektzio-gela bilakatuko da.](#)
- [Getxophoto, Getxo udalerriko kaleetan garatzen den nazioarteko argazkigintza jaialdia da. Joan den urteko irailaren 11etik urriaren 12ra bitartean egin zen eta jaialdiaren gaia mutazioak izan zen. Jaialdiak eman zuena liburuki eder batean plazaratu dute.](#)
- [Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako diputatu Josune Ariztondok aurkeztu zituen atzo abangoardiako artearen erakusketa berri bi hauek: *Ertibil Bizkaia/Arte Gaztea Ikus-artearen Erakusketa Ibiltariaren XXVI. edizioa eta 70eko hamarkadako laborategiak. Modernitatearen krisia eta poetikak/politikak 70eko hamarkadako Euskal Herrian* erakusketa.](#)

[Nor gara gu](#)[Babesleak](#)[Erabiltzaileak](#)[azkenak](#)nontzeberri@nontzeberri.com